VICTORIA EUGENIA
Antzokia

# GURE AHOTSAK

## BELAKO, MAREN, SARA ZOZAYA, AINHOA LARRAÑAGA

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**
Martxoa **6** Marzo
**20:00**
**18 €**

Donostia Kulturak segida emango dio iaz abiatu zuen *Gure ahotsak* musika ekimenari. Emakume musikarien lana balioesteko helburuz, hiru emakume bakarlari eta bi emakumez eta bi gizonez osatutako talde bat izango dira Victoria Eugenia Antzokiko oholtzan martxoaren 6an, Emakumearen Nazioarteko Egunaren ospakizunekin bat eginez: Maren, Sara Zozaya, Ainhoa Larrañaga eta Belako taldea.

Gure Ahotsak 2019an egin zen estreinakoz, Emakumearen Nazioarteko Egunaren bezperan, gure lurraldeko emakumezko musikariek duten maila artistiko aparta azpimarratzeko asmoz.

Gazteak dira, geldiezinak, proiektu propioa dute edo talde baten barruan garatzen dute. Etorkizuna Maren, Ainhoa Larrañaga, Sara Zozaya edo Belakorena da. Berdin dio euren ibilbidearen hastapenetan egotea edo jada izar gisa aritu izana jaialdi garrantzitsuenetako batzuetan: talentu eta karisma handia dute.

Donostia Kultura dará continuidad a la iniciativa musical Gure Ahotsak que arrancó el año pasado. Con el objetivo de poner en valor el trabajo de las mujeres músicas, tres mujeres solistas, Maren, Sara Zozaya, Ainhoa Larrañaga, y el grupo Belako, formado por dos mujeres y dos hombres, actuarán en el escenario del Teatro Victoria Eugenia el próximo 6 de marzo, coincidiendo con la celebración del Día Internacional de la Mujer.

Surgida en 2019, la idea de programar Gure Ahotsak en vísperas del Día Internacional de la Mujer incide en el extraordinario momento artístico en el que se encuentran las músicas de nuestro entorno cercano.

Son jóvenes, inquietas, activas, tienen un proyecto propio o lo desarrollan dentro de un grupo. El futuro pertenece a Maren, Ainhoa Larrañaga, Sara Zozaya o Belako. Da lo mismo que estén en los albores de su carrera o que ya hayan actuado como estrellas en algunos de los más importantes festivales: tienen gran talento y carisma.

## BELAKO

**Josu Ximun Billelabeitia** (gitarra guitarra), **Lore Billelabeitia** (baxua bajo), **Lander Zalakain** (bateria batería), **Cris Lizarraga** (ahotsa voz)

Nazioartean proiekzio handienetakoa duen euskal taldeetako bat da Belako. Hainbat artista ospetsurekin partekatu dute agertokia: Portishead, Two Door Cinema Club, Placebo, Nick Cave, Elvis Costello, The XX, Liam Gallagher... Espainian sari mordoa irabazi dute. RNEren El Ojo Crítico saria, talde errebelazioaren Rolling Stone saria, zuzeneko onenaren Iberian Music Awards saria, eta Artista Onenaren, Zuzeneko Onenaren eta Bideoklip Onenaren MIN sariak. MTVetarako eta Musika-kritikarien Elkartearen Ruido sarietarako ere izendatuta egon ziren. 100 kontzertutik gora eman dituzte nazioartean, besteak beste, Errusian, Japonian, Hego Korean, Mexikon, AEBetan, Alemanian, Ingalaterran, Eskozian, Filipinetan, Italian, Portugalen eta Frantzian. Maiatzean laugarren disko luzea plazaratuko dute: *Plastic Drama*.

Belako es una de las bandas vascas con mayor proyección internacional: ha compartido escenario con Portishead, Two Door Cinema Club, Placebo, Nick Cave, Elvis Costello, The XX, Liam Gallagher... En España han ganado multitud de premios. El Ojo Crítico de RNE, Premio Rolling Stone al grupo revelación, Iberian Music Awards a mejor directo y los Premios MIN a Mejor Artista, Mejor Directo y Mejor Video Clip. También nominados a los MTV y los Premios Ruido de la Asociación de Críticos Musicales. Han ofrecido más de 100 conciertos por Rusia, Japón, Corea del Sur, México, EEUU, Alemania, Inglaterra, Escocia, Filipinas, Italia, Portugal y Francia. En mayo publicarán el cuarto álbum de la banda: *Plastic Drama*.

## MAREN

**Maren** (ahotsa voz, gitarra guitarra), **Víctor Rossy** (gitarra elektrikoa guitarra eléctrica), **Noan Cittadino** (pianoa piano)

Maren gallartar gazteak belaunaldi berrietan bilatzen ditugun balioak transmititzen ditu: poesiarekiko zaletasuna, testu zaindu eta kementsuak, musikarekiko pasioa eta The Beatles, Queen, Vetusta Morla, Arctic Monkeys, Janis Joplin edo Damien Rice falta ez diren play list bat. EP bat du argitaratua, *Alguien sin vergüenza*, ingelesezko, euskarazko eta gaztelaniazko kantuekin. Pop barnekoia da berea, harrigarriki heldu eta sakona. Udazkenean hasi zen bere lehen disko luzea grabatzen eta 2020an kaleratuko du *Margaritas y lavanda* titulupean. Maren/48 Voltsek ekoitziko du eta eta Altafontek banatuko du, BMG argitaletxearen laguntzaz.

Maren llega de Gallarta, Bizkaia. No llega a la mayoría de edad, pero transmite los valores que buscamos en las nuevas generaciones... Gusto por la poesía, los textos cuidados y llenos de aliento, pasión por la música y un play list en su móvil donde no faltan The Beatles, Queen, Vetusta Morla, Arctic Monkeys, Janis Joplin o Damien Rice. Tiene publicado un EP, *Alguien sin vergüenza*, mezclando inglés, euskera y castellano. Sus conciertos son un ejercicio de intimismo pop que sorprende por su madurez y profundidad. En otoño empezó a grabar su primer disco completo que se publicará en 2020 producido por Maren/48 Volts y distribuido por Altafonte con el apoyo de la editorial BMG: *Margaritas y lavanda*.

## SARA ZOZAYA

**Sara Zozaya** (ahotsa, gitarra, teklatuak voz, guitarra, teclados), **Antton Goikoetxea** (gitarra elektrikoa guitarra eléctrica), **Asier Renteria** (bateria, baxuak batería, bajos), **Sebastian Sallaberry** (irudiak visuales)

Sara Zozaya donostiarra akordeoiarekin hasi zen musika munduan. Piazzolla jotzetik bere kantak sortzeari ekin zion 12 urterekin gitarra eta teklatuaren laguntzaz. Orain, Nerabe taldeko abeslaria izateaz gain, bakarkako bideari ekin dio. Bakarka kontzertuak eman ditu Donostiako Fnac-en Musikaren Egunean edota Ángel Stanich irekitzen, adibidez. Lehen bakarkako EPa, *III*, 2018ko abenduan atera zuen eta *Zarata Mondo Sonoro*ren urteko demo onenen zerrendan 7. postua lortu zuen, Kutxa Kultur-eko erresidentzia bat lortzeaz gainera. Oraintsu beste EP bat atera du: *(I)*.

Sara Zozaya, nacida en San Sebastián, comenzó en la música con el acordeón. De tocar obras de Piazzolla saltó a crear sus propias canciones con 12 años utilizando la guitarra y los teclados. Actualmente, además de ser la cantante del grupo Nerabe, ha iniciado su propio camino en solitario. Ha teloneado a grandes artistas como Ángel Stanich o Rafael Berrio. En diciembre de 2018 publicó *III*, su primer EP que quedó séptimo en el ranking de mejores demos del año según *Zarata Mondo Sonoro* y gracias al cual obtuvo una plaza en las residencias de Kutxa Kultur. Acaba de presentar su último EP en febrero: *(I)*.

## AINHOA LARRAÑAGA

**Ainhoa Larrañaga** (ahotsa voz), **Haritz Lauroba** (bateria batería), **Jon Iriarte** (baxua, kontrabaxua bajo, contrabajo), **Garazi Esnaola** (pianoa piano) , **Amaia Miranda** (gitarra guitarra)

Ainhoa Larrañaga abeslari eta aktoreak lehen diskoa kaleratu berri du: *Eskuminak*. Artista ugarirekin kolaboratu du; besteak beste, Alboka, Iker Lauroba eta Capitán Tortugarekin. Hamasei urterekin ETBko *Kantugiro* lehiaketa irabazi zuen eta *Bago!az* saioan bi urtez aritu zen couch gonbidatu gisa. Aktore bezala, *Go!azen* telesailean egin zuen lan hiru denboralditan eta *Adiorik gabe* eta *Go!azen* antzezlanetan parte hartu du.

La joven cantante y actriz Ainhoa Larrañaga acaba de publicar su primer disco: *Eskuminak*. Ha colaborado con artistas y grupos como Alboka, Iker Lauroba y Capitán Tortuga. A los dieciséis años ganó el concurso *Kantugiro* de ETB y colaboró durante dos años en el programa *Bago!az* como couch invitada. Asimismo, ha trabajado en la serie *Go!azen* durante tres temporadas y ha participado en las obras *Adiorik gabe* y *Go! azen*.